15/26

irizpena

Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroarena eta haren tresna komunenari dekretu-proiektuari buruzkoa

Bilbo, 2026ko azaroaren 12a

CES EGAB
Consejo Económico y Social Vasco
Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea

Irizpena 15/26

Argitalpenak / Maketazioa: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea
Gran Vía 81, 7 - 48011 Bilbao Tlfnoa: 944792150
cesegab@cesegab.com - www.cesegab.com

Lizentzia horri esker, berrerabiltzaileek materiala banatu, nahastu, egokitu eta sortu egin dezakete, edozein bitarteko edo formatutan, merkataritzakoak ez diren xedeetarako soilik eta sortzaileari kreditua ematen bazaio. Materiala nahasten, egokitzen edo sortzen baduzu, aldatutako materiala baldintza berdinetan lizentziatu behar duzu..

I.- AURREKARIAK

2026ko azaroaren 21n Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Ekonomia, Lana eta Enplegua Sailaren idazkia jaso genuen. Horren bitartez, "*Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroarena eta haren tresna komunenari buruzko proiektuari*" buruzko txostena eskatu zuen, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Kontsultagai dugun arauaren xedea da, Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 25. artikuluan eta hurrengoetan jasotako Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroa arautzea da.

Era berean, arreta, informazio eta prospekziorako tresna komunak identifikatzen ditu, eta horien funtsezko ezaugarriak definitzen ditu, Euskal Enplegu Sarea osatzen duten erakundeek tresna horiek modu homogeneoan, elkarreragilean eta ebaluagarrian ezarriko dituztela bermatzeko.

Berehala bidali zitzaien dokumentuaren kopia Batzordeko Oso Bilkurako kide guztiei, proposamenak eta iritziak emateko eta horiek guztiak lan-batzordean landu daitezen, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen funtzionamenduari buruzko araudiak xedatutakoaren arabera.

2026ko azaroaren 6an Gizarte Garapenerako Batzordea bildu zen eta, hartutako erabakietatik abiatuta, irizpen-proiektua egin zen, Batzordearen Osoko Bilkuran helarazteko, eta han aho batez onartu zen.

II.- EDUKIA

"*Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroarena eta haren tresna komunenari buruzko Proiektua*" dokumentuak honako hauek ditu: zioen azalpena, 75 artikuluak bost kapitulutan banatuta, sei xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat, azken xedapen bat eta eranskin bat.

Zioen azalpena

Zioen azalpenean azaltzen denez, Dekretuak Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroaren erregulazioa garatzeko eta eguneratzeko beharrari erantzuten dio, **Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023** Legearen 25. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betez, eta Enpleguaren otsailaren 28ko 3/2023 Legeak araututako Enplegu Sistema Nazionalaren Zerbitzu-zorro Komunarekin eta hura garatzeko araudiarekin bat etorriz.

Zerbitzu-zorroa Estatuko Zorro Komunaren lurralde-egokitzapenerako tresna gisa eratzen da, Euskadin Estatu osoko gutxieneko zerbitzu komunak emango direla bermatuz eta, aldi berean, zerbitzu horiek zabaltzea eta pertsonalizatzea ahalbidetuz, euskal lan-merkatuaren ezaugarrien eta Euskal Enplegu Sarearen lehentasun estrategikoen arabera.

II

Euskal Enplegu Sarea kalitatezko zerbitzuak, eskuragarriak eta herritarren eta euskal enpresa-sarearen aniztasunera egokituak, ematen direla bermatzera bideratutako erakundeen arteko lankidetzarako tresna da.

Dekretuak sistemaren kohesioa eta koherentzia indartzen ditu, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoarentzat, foru-aldundientzat, toki-erakundeentzat eta erakunde laguntzaileentzat jarduketa-esparru komuna artikulatuz.

Testuinguru horretan, beharrezkoa da, halaber, kooperatibek eta euskal gizarte ekonomiak kalitatezko enplegua sortzeko, lurralde kohesiorako, langileen parte hartzerako eta jarduera ekonomikoa errotzeko egiten duten ekarpena aitortzea.

Era berean, ereduak gizarte ekimeneko erakundeek, gizarteratzean eta laneratzean espezializatutakoek eta gizarte ekonomiak enplegua lortzeko edo enpleguari eusteko zailtasun handienak dituzten pertsonak aktibatzeko, lagun egiteko eta laneratzeko ibilbideen garapenean egindako ekarpena aitortzen du.

III

Dekretu hau garatzen duen arreta-eredua lagun egiteko ibilbide pertsonalizatu baten inguruan antolatzen da, zeina **Enplegu Plan Integratu eta Pertsonalizatuaren (PIPE)** bidez egituratzen baita, eta orientazioko, prestakuntzako, bitartekaritzako eta lagun egiteko jarduketak modu koherentean antolatzen ditu.

PIPEa enpleguari buruzko estatuko araudian aurreikusitako Jarduera Akordioarekin integratzen da era funtzionalean.

Soilik lan eremua gainditzen duten zaurgarritasun egoerak edo gizarteratze beharrak gertatzen direnean, arretarako ibilbidea **Inklusiorako Programa Integratu eta Pertsonalarekin (PIPEI)** koordinatuta garatu ahal izango da, bi tresnen arteko koherentzia eta osagarritasuna bermatuz.

IV

Jarduketen jarraitutasuna, kalitatea eta trazabilitatea ziurtatzeko, dekretuak ezartzen du Euskal Enplegu Sarea osatzen duten erakunde guztiek nahitaez erabili behar dituztela tresna komunak.

Tresna digitalak eta informazio-sistema partekatuak erabiltzea zerbitzuen eraginkortasuna eta kalitatea hobetzeko bitarteko gisa ulertzen da, aurrez aurreko sarbidea edo sarbide pertsonalizatua mugatu gabe. Dekretuak, nolanahi ere, irisgarritasun unibertsala, datu pertsonalen babesa, informazioaren konfidentzialtasuna eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideen errespetua bermatzen ditu.

Era berean, arreta berezia eskaintzen zaio sinplifikazio administratiboari eta eskatutako kargen proportzionaltasunari.

V

Dekretuak **zorroko zerbitzuen jarraipenerako, ebaluaziorako eta etengabeko hobekuntzarako esparru komuna** ezartzen du, adierazle kualitatibo eta kuantitatibo homogeneoetan oinarrituta, sexuaren eta lehentasunezko arretako kolektiboen arabera bereizita, enplegu-politika publikoen efikazia, efizientzia eta eragina neurtzeko.

Era berean, dekretuak aitortzen du enplegurako orientazio-zerbitzua modu integratuan emateko modalitateak daudela, ongizate-estatuko beste sistema batzuek ematen duten laguntzarekin batera. Hala, **gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbide mistoak** sistemen arteko interakziorako espazio gisa ulertzen dira.

Ibilbide horien antolamendu- eta funtzio-araubidea **Euskal Enplegu Sarearen Dekretuan eta haren Mapan** ezartzen da; dekretu honek, berriz, zerbitzu-zorroan eta tresna komunen sisteman nola txertatu zehazten du, baina horrek ez du esan nahi zerbitzu bereizirik edo programa espezifikorik sortuko denik.

Era berean, dekretuak berariaz mugatzen du bere eremua Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen

IV. kapituluan enplegagarritasuna eta lan egiteko aukera hobetzeko aurreikusitako programa osagarriei dagokienez. Programa horiek zorroan sartutako zerbitzuez bestelakoakdiren eta dekretu espezifiko baten bidez arautu behar diren politika publikoko tresna espezifiko aldi baterako edo finalista gisa eratzen dira.

Xedapen zatia

I. **kapituluak, xedapen orokorrei buruzkoak**, dekretuaren xedea eta aplikazio-eremua ezartzen ditu, zerbitzu-zorroaren kudeaketaren printzipio gidariak definitzen ditu, eta administrazioen arteko koherentzia- eta koordinazio-esparrua finkatzen du. Euskal Enplegu Sarea barne hartzen du, Enplegu Sistema Nazionalarekin bateragarria dela bermatuz.

II. **kapituluak Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroa** arautzen du, pertsonei, enpresei eta erakunde enplegatzaileei zuzendutako prestazioen multzo egituratu gisa. Kapitulu honetan, helburuak, gutxieneko edukia, pertsona eta erakunde hartzaileak, kalitatearen eta baliabideen baldintza komunak, kudeaketaren printzipio informatzaileak eta zerbitzuak eguneratzeko mekanismoak zehazten dira.

III. **kapitulua arreta, informazio eta prospekzioko tresna komunei buruzkoa** da, eta horien izaera, oinarrizko ezaugarriak eta gutxieneko tipologia definitzen ditu. Bertan arautzen dira, besteak beste, arreta- eta jarraipen-tresna komuna, lan-historia bakarra, enpresa-espediente bakarra, informazio- eta profilatze-sistema komunak eta Enpleguaren eta Prestakuntzaren Euskal Behatokia, jarduketen elkarreragingarritasunerako, trazabilitaterako eta ebaluazio homogeneorako funtsezko euskarri gisa.

IV. **kapituluak zerbitzu-zorroko zerbitzuak** garatzen ditu, eta berariaz arautzen ditu enplegurako orientazio-zerbitzua, lanerako prestakuntza-zerbitzua, bitartekaritza-eta enplegatze-zerbitzua, autoenplegurako eta ekintzailetzarako aholkularitza-zerbitzua, pertsona, enpresa eta erakunde enplegatzaileentzako aholkularitza-zerbitzua eta lan-merkatuari buruzko informazio aurreratuko zerbitzua.

Horietako bakoitzerako bere xedea, hartzaileak, sartzeko baldintzak, jarduketa nagusiak eta espero daitezkeen emaitzak zehazten dira.

V. **kapituluak** zorroko **zerbitzuen kalitate-, eraginkortasun- eta ebaluazio-estandarrak** ezartzen ditu, eta jarraipenerako, kontrol teknikorako eta etengabeko hobekuntzarako sistemak arautzen ditu, bai eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta enplegu- eta gizarteratze-politikak ebaluatzeko organoen arteko koordinazio-mekanismoak ere.

Xedapen gehigarriek, iragankorrek eta azken xedapenek osatzen dute arau-esparrua**.**

Eranskinak Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroko zerbitzuen fitxa teknikoak jasotzen ditu, eta modu homogeneoan zehazten ditu haien definizioa, prestazioak, hartzaileak, sartzeko baldintzak, osagaiak, jarduerak eta produktuak, bai eta behar bezala ezartzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeko

beharrezkoak diren beste zenbait elementu tekniko ere.

III.- GOGOETA OROKORRAK

I. Arauaren balioztapena

Euskadiko Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legeak berariaz xedatzen du 25. artikuluan eta hurrengoetan Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroa erregelamendu baten bidez garatu behar dela, eta horretarako tresna komunak sortu behar direla, informazioaren elkarreragingarritasuna eta esku-hartzeen trazabilitatea bermatzeko xedez.

Lege hori onartu zenetik, erabiltzaileen eskubide subjektiboei eduki eraginkorra emateko eta enpresen eskaerei modu integralean erantzuteko beharra aitortzen da, produkzio-sarearen lehiakortasuna indartuz. Euskal Enplegu Sareak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan, foru-aldundietan eta toki-erakundeetan lehendik dauden egituretan eta baliabideetan jarduten badu ere, lan-merkatuaren eraldaketak eta erronka sozioekonomikoen bilakaerak jarduera horien antolamendu sistematikoagoa, homogeneoagoa eta koordinatuagoa eskatzen dute.

Arestian aipaturiko zerbitzu-katalogoa eta haren euskarri operatiboak arautzea helburu daukan «*Euskal enplegu-sarearen zerbitzu-zorroari eta haren tresna komunei buruzko dekretu-proiektua*» delakoaren inguruko irizpena emateko eskatu digute,

Aztergai darabilgun testuarekin batera doan memoriak aipatzen duen bezala, administrazio-esperientziak argiro erakusten du, kalitate-estandarrak eta metodologia partekatuak definitzen dituen baterako erregulaziorik gabe, oso zaila dela erakundeen arteko lankidetza bermatzea, bikoiztasunak saihesteko eta sistemaren antolamendu-konplexutasunak herritarrei eragingo ez diela ziurtatzeko.

Aurrekoaren ondorioz, batzorde honek **positibotzat jo du zerbitzu-zorroari buruzko dekretua izapidetzea**. Hala ere, gogoeta hauek egin nahi ditu:

II. Beste gogoeta orokor batzuk

Enplegu-politiken eraginkortasunari eta **zerbitzu eta programen ebaluazioari** dagokienez, honako hau azpimarratu nahi dugu:

25.1 artikuluak **Enpleguaren eta Prestakuntzaren Euskal Behatokiari** esleitzen dio enplegu-politiken eraginkortasuna aztertzeko enkargua: «*Enpleguaren eta Prestakuntzaren Euskal Behatokia Euskal Autonomia Erkidegoko lan-merkatuari, prestakuntzari eta enplegu-politiken eraginkortasunari buruzko informazio estrategikoa analizatzeko, aztertzeko eta zabaltzeko tresna komuna da*». Hala ere, 2. atalean garatutako funtzioen artean, zerbitzu-zorroko zerbitzuen eta programen ebaluazioa ez dago jasota. Gure ustez, artikuluak argi eta berariaz jaso beharko luke funtzio hori.

72.1 artikuluak ondokoa xedatzen du: «***Lan-merkatuari buruzko informazio aurreratuko zerbitzuaren** helburua da lan-merkatuari buruzko informazioa eta prospektiba biltzeko, prozesatzeko, aztertzeko eta zabaltzeko prozesua erraztea, eta pertsona, enpresa eta erakunde enplegatzaile erabiltzaileek erabakiak hartzeko, enplegu-politika publikoak planifikatzeko eta enplegu-politikak ebaluatzeko eta Sareko gainerako zerbitzuak etengabe hobetzeko euskarri gisa balio izatea*». Ondorioz, lan-merkatuari buruzko informazio aurreratuko zerbitzuak ere ez du programaren eta zerbitzuen ebaluazioa aintzat hartzen.

Beste alde batetik, 74.1 artikuluak ondokoa ezartzen du: *«Zorroko zerbitzuen prestazioa adierazle kualitatibo eta kuantitatibo homogeneoen bidez ebaluatuko da, sexuaren eta lehentasunezko arretako kolektiboen arabera bereizita, zerbitzuen kalitatearen, efikaziaren, efizientziaren eta eraginaren jarraipena egin ahal izateko»,* eta 75.1 artikuluak, berriz, ondokoa: *«Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa arduratuko da Euskal Enplegu Sarearen jarduketen kudeaketaz, jarraipenaz eta ebaluazio operatiboaz, eta behar bezala gauzatzen direla, parte hartzeko konpromisoak betetzen direla eta zorroko zerbitzuetarako ezarritako kalitate- eta eraginkortasun-adierazleak neurtzen direla bermatuko du».* Gure ustez, Euskal Enplegu Sareko gainerako kideek gai honetan beren gain hartzen dituzten eginkizunak eta erantzukizunak zehaztu eta zabaldu beharko lirateke.

Jarraian, berariazko gogoeta batzuk aurkeztuko ditugu, dekretua finkatutako helburuei hobetu egokitu dakien.

IV.- GOGOETA BEREZIAK

14. artikulua. Oinarrizko ezaugarriak

Artikulu horrek ondokoa xedatzen du: «(…) *tresna komunek hauek bete beharko dituzte:*

f) Erakunde eta sistema integratuen arteko elkarreragingarritasun teknikoa eta etengabeko elkarreragina bermatzea.

g) Arretaren eta zerbitzuak ematearen kalitate-maila homogeneoak ziurtatzea.

h) Egindako jardueraren jarraipena eta ebaluazio jarraitua egiteko aukera ematea.

i) Erabiltzaileen eskubideak babestea irisgarritasunaren, konfidentzialtasunaren eta datuen babesaren arloan.

j) Moldagarritasuna eta eguneratze teknologikoa, etengabeko bilakaera ahalbidetuz, aurrerapen teknikoen eta sarean hautemandako beharren arabera».

Gure ustez, zerbitzuaren arretaz eta prestazioaz denaz bezainbatean, herritar guztien hizkuntza-eskubideen errespetua bermatu behar da, eta herritarrentzako arreta euskaraz ere eman behar dela jaso behar da.

Hortaz, letra lodiz nabarmendutako testua gehitzea proposatzen dugu:

Tresna komunek hauek bete beharko dituzte:

f) Erakunde eta sistema integratuen arteko elkarreragingarritasun teknikoa eta etengabeko elkarreragina bermatzea.

g) Arretaren eta zerbitzuak ematearen kalitate-maila homogeneoak ziurtatzea, **euskarazko arreta ere aintzat hartuta**.

h) Egindako jardueraren jarraipena eta ebaluazio jarraitua egiteko aukera ematea.

i) Erabiltzaileen eskubideak babestea irisgarritasunaren, konfidentzialtasunaren eta datuen babesaren arloan.

j) Moldagarritasuna eta eguneratze teknologikoa, etengabeko bilakaera ahalbidetuz, aurrerapen teknikoen eta sarean hautemandako beharren arabera.

30. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak

a) letran arautzen da enplegurako orientazio-zerbitzuaren erabiltzaileek ondoko eskubidea dutela: *«Erreferentziako profesional baten bidez arreta pertsonalizatua, egokia, integrala eta jarraitua*

jasotzea, lan-trantsizioetan zehar, hezkuntzatik enplegura igarotzean edo enplegu- eta langabezia-egoeren artean».

Adierazi dugun bezala, gure ustez, arreta ematerakoan eta zerbitzua ematerakoan, herritar guztien hizkuntza-eskubideak errespetatzen direla bermatu behar da, eta arreta hori euskaraz ere jasotzen dela.

Hori dela eta, letra lodiz adierazitakoa gehitzea eta testua berrantolatzea proposatzen da, honela gera dadin:

a) Erreferentziako profesional baten bidez arreta pertsonalizatua, egokia, integrala eta jarraitua jasotzea, **hizkuntza-eskubideak errespetatuaz eta bermatuz**, lan-trantsizioetan zehar, hezkuntzatik enplegura igarotzean edo enplegu- eta langabezia-egoeren artean.

65. artikulua. Lanerako prestakuntza-zerbitzuaren jarduketak.

1. atalak honako hau ezartzen du: «*Lanerako prestakuntza zerbitzuak barnean hartuko ditu prestakuntza-jarduketen multzoa, modalitate eta helburu guztietan* (…). *Horretarako, jarduketa hauek garatuko ditugu:*

k) Langabeentzako prestakuntza, haien sustapen eta garapen profesionalerako hasierako kualifikaziora edo birkualifikazio profesionalera bideratua.

l) Landunentzako prestakuntza, konpetentziak hobetzeko eta eguneratzeko, bai eta haien sustapen eta garapen profesionalean laguntzeko ere.

m) Ekintzailetza kolektiboari eta enpresa-eredu parte-hartzaileei eta jasangarriei lotutako konpetentziak garatzera bideratutako prestakuntza.

n) Ikaskuntza eta benetako lana uztartzen dituzten prestakuntzako eta enpleguko ekintza mistoak.

o) Lanbide Kualifikazioen Euskal Katalogoari eta Lanbide Konpetentzien Estandarren Katalogo Nazionalari lotutako prestakuntza modularra.

p) Lan-esperientziaren edo ikasteko beste bide ez-formal batzuen bidez eskuratutako konpetentzia profesionalak aitortzeko, ebaluatzeko eta egiaztatzeko programak, hezkuntza-sistemarekin koordinatuta.

q) Lagun egite, tutoretza eta orientazioko jarduketa osagarriak, laneratzeko edo hobetzeko ibilbide pertsonalizatuetan integratuak.

r) Lanerako lanbide-heziketaren arloko prestakuntza-, berrikuntza- eta esperimentazio-beharrak detektatzeko jarduketak.

s) *Enpresa eta erakunde enplegatzaileetan hautemandako beharrei lotutako prestakuntza-jarduketak, hala dagokionean, enpresek programatutako prestakuntza barne, eta enpresentzako aholkularitza-zerbitzuarekin koordinatuta ezartzen diren izaera estrategikoko beste prestakuntza-ekimen batzuk*».

Goian jasota dauden jarduketez gain, euskarazko hizkuntza-gaitasunak eskuratzeko orientabidea ere jaso behar dela uste dugu.

Horregatik, j) letra txertatzea proposatzen dugu, honako eduki hau gehituta:

t) Bi hizkuntza ofizialetan hizkuntza-gaitasunak eskuratzeko prestakuntza-jarduerak.

70. artikulua. Autoenplegurako eta ekintzailetzarako aholkularitza-zerbitzua

2. atalak ezartzen duenez, legean araututako funtzioak garatze aldera, aholkularitza-zerbitzuak hainbat jarduera egingo ditu, eta horien artean dago, hain zuen a) letran ageri dena: «*Ekintzailetza-prozesuari eta ekintzailetzarako prestakuntzari buruzko informazioa eta orientazioa, ekintzailetza kolektiboari eta gizarte-ekonomiako proiektuei buruzko orientazioa barne, ekimenaren plangintza eta bideragarritasuna babestuz*».

Enpresaren ondorengotza errazteko, letra lodiz adierazi ditugun honako **gehigarri** hauek proposatzen dira:

b) Ekintzailetza-prozesuari, ekintzailetzarako prestakuntzari eta **enpresaren ondorengotzari** buruzko informazioa eta orientabidea, ekintzailetza kolektiboari eta gizarte-ekonomiako proiektuei buruzko orientabidea barne, ekimenaren plangintza eta bideragarritasuna babestuz, **bai eta langileei eskuratzeko aukera emanez**.

72. artikulua.- Lan-merkatuari buruzko informazio aurreratua emateko zerbitzua.

2.atalak ondokoa ezartzen du: «*Zerbitzuak, gutxienez, hauei buruzko informazio eguneratua eta konparagarria jaso beharko du:*

f) Enplegu-zerbitzuen eskatzaileen lan-egoerari buruzko informazio eguneratua eta banakatua, lehentasunezko arreta behar duten kolektiboen egoera ezagutzeko.

g) Okupazioen, sektoreen eta kualifikazio-beharren joerak eta etorkizuneko proiekzioak.

h) Kualifikazioei eta enplegu-aukerei lotutako .

i) *prestakuntza-ibilbide gomendatuak*

j) *Laneratzeari eta enpleguaren kalitateari lotutako adierazle nagusiak, titulazio ofizialen arabera, gutxienez enplegu-tasa, azpienplegua, batez besteko bilaketa-denbora eta jasotako batez besteko soldata barne.*

Gure ustez, informazio aurreratuko zerbitzuak berariaz jaso behar du lanaren kalitateari eta lan-merkatua osatzen duen enpleguari eta sortzen ari denari buruzko informazioa.

Hori dela eta, a) bis puntu berria gehitzea iradokitzen dugu, honela idatzita:

b) bis) Lan-merkatuaren egoera eta bilakaera, eta enpleguaren kalitatea, generoaren arabera bereizita.

V.- ONDORIOA

Euskadiko EGABek egokitzat jotzen du «Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroari eta haren tresna komunei buruzko Proiektua» izapidetzea, kontsulta-organo honek hura aldatzeko egindako oharrak kontuan hartuta.

OE Presidentea	Idazkari Nagusia
Javier Muñecas Herreras	Izaskun Astondoa Sarria